

BALOREZKO PROPOSAMENA

- **ARAZOA**

- Informazioa azkar eta seguru bilatzeko tresna berri honek ezjakintasunari bide bat irekiko dio, *Check It* aplikazioan soilik klik eginez. Gaur egun ikusentzunezko edukiekin aurki ditzakegun arazoei, hain zuzen ere zein bideo edota zein audio den ez jakiteari, konponbide bat aurkituko dio aplikazio honek.

- **BERRIKUNTZA**

- *Check It* bezalako horren aplikazio konplexurik ez dugu inon ikusiko, ikusentzunezko edukiak inplikatzear gain YouTube, Instagram eta Spotify bezalako sare sozialekin harremanetan dagoen aplikazioa izate hutsak aktualitatea ematen baitio. Horrez gain, momentu oro aplikazioa eguneratuko dugu.

- **ERAGILE GILTZARRIAK**

- **Prezioa:** aplikazioa dohainik izango da. Hala eta guztiz ere, aplikazioa finantziatzeko anuntzioak jarriko ditugu. Anuntzioak kendu nahi badira, eta biltutako edukiak YouTubeko, Spotifyeko edo Instagrameko zerrenda batean gorde nahi badira, hau da, premium kontua izateko hilabetean 0.99€ ordaindu beharko du erabiltzaileak.
- **Diseinua:** aplikazioaren botoia deigarria izango da, gazteei zuzendua egongo baitelako aplikazioa. Ikus-entzunezkoak hartzen direnez kontuan, musika nota bat, "play" ikurra eta beste hainbat irudi azalduko dira botoiean, zirkulu handi batez inguratua.
- **Segurtasuna:** aplikazioan egongo diren anuntzioak plugin babesle baten bidez kudeatuko dira, hackeo eta arriskuak ekiditeko. Horrez gain, erabiltzaileak ez du kontu bat sortu beharko; beraz, ez ditu bere datuak eman beharko. Erabiltzaileen pribatutasuna zorrotz kontrolatuko da.